

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

**ESKOLAREN ETA FAMILIEN ARTEKO HARREMANA
AZTERGAI**

Egilea: Nagore Angiozar Garitano

Zuzendaria: Ainhoa Gana Dañobeitia

Leioan, 2021(e)ko ekainaren 1ean

AURKIBIDEA

1. Sarrera 4

2. Esparru teorikoa..... 4

2.1. Familia kontzeptuaren definizioa 5

2.1.1. Familia motak..... 5

2.2. Familia eta eskola harremana 6

2.2.1. Familia eta eskola harremanaren eboluzioa 7

2.2.2. Familien parte-hartzea eskolan..... 7

2.2.3. Nola sustatu elkarlana 8

2.2.4. Familiek eskola sisteman parte-hartzeak dituen onurak 8

2.2.5. Familia eta eskola noranzko biko ardatza 9

3. Metodologia 10

3.1. Iker objektua 10

3.2. Diseinua 10

3.2.1. Helburuak..... 10

3.2.2. Partaideak..... 11

3.2.3. Datu bilketarako tresnak 12

3.2.4. Datuen kategorizazioa 13

3.2.5. Denboralizazioa 13

3.3. Etika eta datu pertsonalen babesa 14

4. Emaitzen analisia eta interpretazioa..... 14

4.1. Errealitatea..... 14

4.2. Harremana 15

4.3. Maiztasuna 16

4.4. Asebetetzea 17

5. Ondorioak 19

5.1. Ondorioen eztabaida 19

5.2. Ikerketaren mugak eta etorkizunerako lan-ildoak 20

6. Erreferentzia bibliografikoak 22

7. Eranskinak..... 25

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. Kronograma.....	13
--------------------------	----

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1. Eskolan parte-hartzen dute eta eskolan zertan parte-hartzen dute.....	15
Grafikoa 2. Familien bilerak proposamenak.....	17
Grafikoa 3. Eskolaren aldetik zerbait faltan botatzen dute.....	18

ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. Eranskina: INCLUD-ED taula.....	25
2. Eranskina: Irakasleari egiteko elkarrizketa.....	26
3. Eranskina: Haur Hezkuntzako koordinatzaileari egiteko elkarrizketa.....	28
4. Eranskina: Familientzako galdetegia Euskaraz.....	30
5. Eranskina: Familientzako galdetegia Gazteleraz.....	33
6. Eranskina: Irakasleei egiteko galdetegiak.....	36
7. Eranskina: Baimen Informatuen Orria.....	39
8. Eranskina. Kategorizazio orokorren taula.....	40

ESKOLAREN ETA FAMILIAREN HARREMANA AZTERTZEN

Nagore Angiozar Garitano

UPV/EHU

Eskola eta familia elkarlanean aritzea haurren garapen fisiko, emozional, sozial eta kognitiborako garrantzitsua dela kontuan harturik, Gradu Amaierako Lan honek familiaren eta ikastetxearen arteko harremana ikertzea du helburu nagusi. Horretarako, Bizkaiko 3000 biztanle inguru dituen udalerrian kokatutako ikastetxe publiko batean ikerketa egitea erabaki da. Ikerketako partaideak, Haur Hezkuntzako irakasleak, Haur Hezkuntzako koordinatzailea, bost urteko haurren familiak eta irakasle tutorea dira. Erabilitako metodologia mistoa izan da, ikerketako tresnak zehazki elkarrizketak eta galdetegiak izan direlarik. Tresna hauen bidez lortutako informazioa aztertu eta lanaren emaitzak atera dira, ondoren, emaitzetan eta marko teorikoan oinarrituz ikerketaren ondorioak ateratzeko.

Familia, -harremana, -parte-hartzea, -elkarlana eta -komunikazioa

Teniendo en cuenta la importancia de la colaboración escolar y familiar para el desarrollo físico, emocional, social y cognitivo del niño, este Trabajo Fin de Grado tiene como objetivo principal investigar la relación entre las familias y el centro educativo. Para ello, se ha decidido llevar a cabo una investigación en un centro público ubicado en un municipio de Bizkaia de alrededor de 3000 habitantes. Los participantes de la investigación son el profesorado de Educación Infantil, coordinadora de Educación Infantil, familias de niños y niñas de cinco años y la profesora tutora. La metodología empleada en la investigación ha sido mixta, siendo las herramientas de investigación concretamente entrevistas y cuestionarios. A través de la información obtenida con estas herramientas se han extraído los resultados del trabajo, para a continuación extraer las conclusiones a partir del marco teórico y de los resultados de la investigación.

Familia, -relación, -participación, -colaboración y -comunicación

Given that school and family cooperating is important for the physical, emotional, social and cognitive development of the child, the main objective of this Final Degree Project is to investigate the relationship between the family and the school. To achieve this aim, an investigation is planned at a public school located in the municipality of Bizkaia, which has a population of about 3000. The participants in the study are, the teachers of Infant School, the coordinator of Infant School, the families of five years children and the tutor. The methodology used has been mixed, with the tools of research being specifically conversations and questionnaires. The information obtained through these instruments has been analysed and the results of the work have been produced, based on the results and the theoretical frame to draw the conclusions of the research.

Family, -relationship, -participation, -collaboration and -communication

1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honetan, eskolaren eta familien arteko harremana ikertu da ikerketa misto baten bidez. Ikerketa, Bizkaiko 3000 biztanle inguru dituen udalerrri batean kokatuta dagoen ikastetxe publiko batean burutu da. Bertan, 5 urteko umeen gelako haurren familiei eta Haur Hezkuntzako (HH) etapako irakasleei galdetegiak egin zaizkie eta Haur Hezkuntzako tutoreari eta HHko koordinatzaileari elkarrizketak.

Esan bezala, ikerketaren helburu nagusia, eskola konkretu honetan, ikastetxearen eta familiaren arteko harremanaren errealitatea ezagutzea da. Hala ere, lanak beste helburu batzuk ere baditu, eskola- eta familia-harremana izateko erak aztertzea, eskolan gehien ematen den harreman mota ezagutzea, bi instituzioen artean dagoen harremanaren maiztasuna aztertzea eta eskola eta familia daukaten harremanarekin gustura dauden ikertzea.

Familia eta eskola elkarlanean aritzea beharrezkoa izateaz gain, haurrarentzat garapen fisiko, emozional, sozial eta kognitiborako garrantzitsua da (Hik Hasi, 2014). Hori dela eta, ikerketa hau familiaren eta eskolaren artean dagoen harremana eta honen errealitatea ezagutzeko planteatu da.

Lanean, lehendabizi marko teorikoa finkatu da. Bertan, familia kontzeptuaren definizioa, familiaren eta eskolaren artean harreman positiboa egoteak umearengan dituen onurak eta familiak eskolan parte-hartzeko dauden erak azalduko dira, besteak beste. Horrez gain, aipatutako helburuak betetzeko, iker-galdera bat planteatu da: Eskolaren eta familien artean nolako harremana dago? Ondoren, galdetegi eta elkarrizketa bidez ikerketa mistoa burutu da eta emaitzak lortu, aztertu eta hauek interpretatu dira. Azkenik, ikerketaren ondorioak atera dira.

2. Esparru teorikoa

Jarraian, lanaren esparru teorikoa azalduko da, bertan familia kontzeptuaren definizioa; familia motak; eta familia eta eskola harremanaren eboluzioa landuko dira, besteak beste.

2.1. Familia kontzeptuaren definizioa

Azken hamarkadetan izan diren gizarte-aldaketek, eragin nabarmena izan dute gaur egungo familia konfigurazioan, eta zehatzago, familia-egituren aniztasunean (Aguado, 2010a).

Familiaren izaera konplexua, anitza eta dinamikoa izateaz gain, balioz eta aurreiritziz josia egoten da. Horregatik, familiaren inguruko definizio bakar bat aurkitzea oso zaila da. Euskal Estatistika Erakundeak familia, pertsona multzo bezala definitzen du, pertsona horiek beraien artean odolezko edo ezkontzaren ondoriozko ahaidetasun-harremana izaten dute, eta elkarrekin bizi dira etxebizitza berean (Eustat, d.g.).

Aguadok (2010b), Rodrigoren eta Palaciosen (2001) definizioa erabiltzen du:

(...) gure ustez honako hau izango litzateke kontzeptuaren muina: pertsona elkarketa. Hain zuzen pertsona horiek elkarrekiko bizitza proiektu iraunkorra izatea nahi dute; kideetasun-sentimendu sendoak sortzen dira eta kideen arteko konpromiso pertsonala dago eta, intimitate, elkarrekikotasun-eta menpekotasun-harreman estuak sortzen dira (32. or.)

Beraz, autore hauek azaltzen duten bezala, familia pertsonen elkarketa bat da. Elkarketa hori duten pertsonak bizitza proiektu iraunkorra izaten dute, beraien artean konpromiso pertsonala dago eta kideetasun sentimendu sendoak izaten dituzte. Definizio ugari egon arren, lan honetan aipatutako definizioa erabiliko da, gaur eguneko errealitatera hobeto moldatzen den definizioa delako.

Familia ume baten bizitzako lehenengo urteetan garrantzi handiena duen instituzioa da. Haurrak familian babestuak sentitzen dira eta bertatik hasten da ume baten sozializazioa eta taldean duen zereginaren ikaskuntza. Romerok (2010) familia oso garrantzitsua dela aipatzen du, bertan umeak balioak eskuratzen dituelako eta kultura eta gizartera egokitzen ikasten duelako. Familian ematen dira lehenengo sozializazio pausuak, baita helduarorako bideratutako zaintza eta ardurara bideratutako lehen ikaskuntzak ere (Comellas, 2009). Hezkuntzari dagokionez, umearen hezkuntza prozesuaren lehenbiziko arduraduna da.

2.1.1. Familia motak

Gaur egun, familia eredu bakar bat izatetik, eredu desberdineko familiak izatera igaro gara (González, 2009). Aguadok (2010b) 13 familia mota bereizten ditu, hala nola: familia hedatu edo konplexuak, nuklear funtzionalak, guraso bakarreko familiak,

izatezko bikoteak, seme-alabarik gabeko guneak, pertsona bakarreko guneak, familia berreraikiak, adopzio-familiak, harrera-familiak, sexu bereko pertsonen osatutako familiak, ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak, subrogazioaren bidez sortutako familiak eta etorkinen familia aniztasuna.

Hainbat familia mota aurki daitezke, hala ere, Eusko Jaurlaritzaren (2003) arabera, familia mota hauek guztiak egoteaz gain, ezkontza familia nuklearra da gure gizartean gehien dagoen familia mota. Azken hau gehien hedatutako familia mota izan arren, familia mota ia-ia guztiak beraien artean desberdinak direla kontuan hartzea ezinbestekoa da, konposizio eta egoera anitzekoak daudelako (Hik Hasi, 2010).

2.2. Familia eta eskola harremana

Familiaren eta eskolaren arteko harremana ona izatea beharrezkoa da, honek haurren emaitzak hobetzea ekartzen duelako. Are gehiago, bien arteko harremana txarra izateak, komunikazio eta kolaborazioa zailtzen du (Hik Hasi, 2010). Familiek ikastetxean parte-hartzen dutenean, hezkuntza-alorreko arazoak hobeto ezagutzen dituzte eta horrek eskolaren eta irakasleen aurrean jarrera hobea izatera daramatza (Mondragon Unibertsitatea, 2007).

INCLUD-EDen (2011) aipatzen den bezala, komunitateak eskolan parte-hartzeak haurren errendimendu akademikoa hobetzea dakar. Eta ez soilik errendimendu akademikoa, bien arteko elkarlanak kultura-onarpenak sustatzen laguntzen du, baita genero desberdintasunak gainditzen ere. Gainera, Dominguezek (2010) aipatu bezala, frogak egin ondoren, bien arteko lankidetzarik ez badago, haurrak bere eskola ibilbidean hainbat arazo eta oztupo eduki ditzakeela frogatu da, aitzitik, lankidetzaren egokia ematen bada, bere bilakaera egokiagoa izateko aukera dago.

Lankidetzarekin batera, garrantzitsua da bien arteko harremanean familiak eta eskolak mugak dituela kontuan hartzea. Familia umeen heziketaren arduradun nagusia izan arren, sarri, ardura hori irakasleengan eta eskolarengan jartzen da. Eskolak hezi arren, ardura biena dela kontuan hartzea nahitaezkoa da. Familiaren mugak kontuan hartuz, gaur egun, familiako senide gehienek lan egiten dute, horrek etxera nekatuak heltzea dakar eta ondorioz, haurrei atentzio eta dedikazio gutxiago eskaintzen zaie (Hik Hasi, 2010).

2.2.1. Familia eta eskola harremanaren eboluzioa

Eskolak, familiei umeen garapenean lagundu ahal izateko instituzio bezala sortu ziren (Sosa, 2009). Familia- eta eskola-harremana urteak aurrera igaro ahala aldatuz joan da, lehen esaterako, eskolek komunitatearekin oso harreman estua zuten. Hasiera batean, elizako ordezkariak eta familiek kontrolatzen zuten curriculum akademikoa, hauek kontratatzen zituzten irakasleak eta beraiek erabakitzen zuten eskola ordutegia (Rodrigo eta Palacios, 2001).

XX. mendean baina, eskola eta familia urruntzen joan eta bien arteko harremanerako eredu berriak sortzen hasi ziren. Irakasleek, gurasoek zuten esperientziatik urrun zeuden gaiak irakasten zituzten eta gurasoek gero eta gutxiago esan zezaketen eskolan lantzen ari zenaz. Horrela, pixkanaka, gurasoen eta eskolaren artean gero eta gatazka gehiago sortu ziren (Rodrigo eta Palacios, 2001).

1978ko Konstituzioarekin batera familiak hezkuntza instituzioen partaidetza-organoetan parte-hartzearen alde egiten ahalegindu ziren. Momentuan lortu ez zuten, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoarekin (LODE), bigarren aldiz saiatu eta Eskola Kontseiluak sortzea lortu zuten, honekin batera familiek eskolan parte-hartzea indartu zen. (De León, 2011).

2.2.2. Familien parte-hartzea eskolan

Familien eskolako parte-hartzeari dagokionez INCLUD-EDek (2011) bost parte-hartze mota bereizten ditu. Parte-hartzea informatiboa, kontsultak soilik egitekoa, erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezigarria izan daiteke ¹:

- Parte-hartze informatiboa: informazioa gurasoei bilera bidez eta eskolako bestelako ekintzen bidez transmititzen zaie. Familiak, bezeroak edo eskolatik aldenduak izango balira bezala hartzen dira, beraiek ezin dutelako inolako erabakirik hartu, informazioa soilik jasotzen dute.
- Kontsultategi: kontsultak soilik egiten diren parte-hartzeetan, gurasoek eskolako organoetan parte-hartzen dute. Parte-hartze hau baina, kontsultak egiteko soilik izaten da, familiek ekarpenak gutxitan egiten baitituzte.
- Erabakitzailea: erabakitzaileetan, komunitateko kideek erabakiak hartzen parte-hartzen dute. Familiak, irakasleekin batera erabakiak hartzen dituzte. Ikerketa

¹ Ikus 1. Eranskina: INCLUD-ED taula.

batzuen arabera, gurasoek emango diren gaiak erabakitzeke momentuan hartzen dute parte gehien, eta gutxiago eskolako aurrekontuetan eta politika pertsonalean.

- Ebaluatzailea: parte-hartze ebaluatzailean, familiek eta komunitateko kideek haurren ikaskuntza parte-hartzen dute, ondoren hau ebaluatzen lagunduz.
- Hezigarria: parte-hartze hezigarrian, familiek eta komunitateko kideek, bi modu desberdinetan parte-hartzen dute. Alde batetik, haurren ikasketa prozesuan, eta bestetik formazioan. Umeen eskolako ordutegiaz gain, eskolaz kanpo ere umeen hezkuntzan laguntzen dute. Horrez gain, beraien beharrak asetzen laguntzen duten programetan parte-hartzen dute.

Beraz, eskolan parte-hartzeko modu desberdinak egon arren INCLUD-EDek aipatutako bostak bereizten ditu.

2.2.3. Nola sustatu elkarlana

Eskolaren eta familiaren arteko elkarlana sustatzeko bi aldeen artean komunikazioa egotea ezinbestekoa da. Eskolako irakasleak eta langileak errespetatuak sentitzea beharrezkoa da, irakaslea errespetatua sentitzeak, gurasoekin erlazio hobea izatea ekartzen duelako (Hik Hasi, 2010). Eskolatik, garrantzitsua da familiek hezkuntza-prozesuari egiten dioten ekarpena onartzea eta familia guztiek ahotsa daukatela eta guztiak entzun behar direla kontuan hartzea (Secretaría General Técnica, 2015).

Horrez gain, familiak eta eskolak elkar ezagutzea garrantzitsua da, konfiantza giroa sortzea dakarrelako (Hik Hasi, 2010). Konfiantza giroa sortu ahal izateko, topagune eta leku aproposak aurkitu behar dira (De León, 2011).

Familiekin lankidetzan kalitatea kantitatea baino gehiago baloratu behar da, aldaketetara egokitzeko gai izango den plangintza erreal eta malgua edukiz (Secretaría General Técnica, 2015). Hala ere, familiaren eta eskolaren artean lankidetzak bilatzeko, jarrera irekia, hurbila, lankidetzakoa, kooperatiboa eta bi eragileen artean begirune handia izatea behar da (Alonso, 2005).

2.2.4. Familiek eskola sisteman parte-hartzeak dituen onurak

Familiak eskola sisteman parte-hartzeak onurak dakartza, bien arteko erlazioa ikaslearen hezkuntzan oso garrantzitsua da (Garreta, 2013). Seme-alaben lehen agente hezitzaileak direla kontuan hartuz, umeen hezkuntzan zerikusia duten erabakietan parte-hartzea

eskatzen zaie. Ikastetxeko funtzionamendu egokiari dagokionez, bileretan eta erabakiak hartzeko momentuetan parte-hartze aktiboa eduki behar dute (Garreta, 2008).

Familiak eta eskolak haurrari babesa eta laguntza emateko ahaleginak egiten dituztenean, haurraren garapena errazten da. Aldiz, bien artean desadostasunak azaltzen badira, umearen emaitzak okerrerantz joan daitezke, autoestimuan eta norberaren irudian eragin negatiboa edukiz (Sosa, 2009). Bien artean elkarlanean aritzea nahitaezkoa da, umearentzat onuragarria delako bere garapen fisiko, emozional eta sozialerako (Hik Hasi, 2014). Gainera, umeei gurasoen aldetik parte-hartzea eta interesa ikusten dutenean seguruagoak sentitzen dira, eta horrek, beraien heziketa prozesuan laguntzen die (Hik Hasi, 2010).

Serdioen (2008) esanetan, eskola eraginkorrek laguntzen dituzten familiak izaten dituzte, eta lankidetzaren harreman horretatik lortutako onurek hezkuntza-komunitate osoan eragina izaten dute. Beraz, familiek eskolan parte-hartzeak umearengan ez ezik, eskola komunitatean eragin positiboa du, familiek, eskolaren funtzionamendua hobeto ezagutzeko aukera dutelako eta beste familia batzuekin harremanak izaten dituztelako, eskolako giroa hobetuz. Eskola ezagutzeak gainera, konfiantza eta jarrera baikorra sortzen du instituzioarekiko (Hik Hasi, 2010). Eta hori gutxi balitz, familiek eskolan parte-hartzeak umeen eskola porrotean eragina du, hau gutxituz (Pérez, Rodríguez eta Sanchez, 2001).

2.2.5. Familia eta eskola noranzko biko ardatza

Umeen heziketan noranzko berdinean joatea beharrezkoa da, horretarako, bien arteko loturak ezarri behar dira, kolaborazioan eta konfiantzan oinarritutako lankidetzaren egon dadin (Villa, 2007). Familiaren eta eskolaren arteko komunikazioa bi norabidetakoa izan behar da. Honek zera esan nahi du, familiak eskolarengandik informazioa jasotzea ezinbestekoa duela, informazio horretan honakoa jasotzen da: eskolak dituen eskaintzak, eskolan eta etxean nola lagundu eta zer eta nola ikasten ari den. Horrez gain, eskolak ere familiarengandik informazioa jaso behar du, dituen beharrak, gogoak, kezak, zertan parte-hartzeko eta laguntzeko prest dauden, besteak beste. Gainera, familien egoera, nahiak eta mugak ezagutzea ere egokia da, honek parte-hartze prozesuan bidea errazten duelako (Hik Hasi, 2010).

3. Metodologia

Atal honetan, ikerketa lana egin ahal izateko erabili den metodologia zein izan den azaltzen da: iker objektua, diseinua (ikerketaren helburuak, partaideak, datuen bilketarako tresnak, datuen kategorizazioa, denboralizazioa) eta irizpide etikoak.

3.1. Iker objektua

Arestian esan bezala, lan honetan eskola konkretu bateko familiaren eta eskolaren artean dagoen harremanaren errealitatea aztertu da. Horretarako, iker-galdera bat proposatu da: *Eskolaren eta familien artean nolako harremana dago?* Galdera horri erantzuna emateko asmoz, oinarri teorikoa aintzat harturik diseinatu da ikerketa hau.

3.2. Diseinua

Ikerketak, eskolaren eta familiaren harremanaren errealitatea ezagutzea helburu izanda, ikerketa misto bat eraman da aurrera. *Ikerketa mistoa* egitearen arrazoa lanaren helburua hobeto islatzeko aukera ematen duela da, bi metodoak konbinatuz partaideen iritzietan kontraste egokiagoa ematen baita.

Ikerketa kualitatibo baten helburua, hezkuntza eta gizarte fenomenoak sakonki ulertzea, gizarte eta hezkuntza praktikak eta agertokiak aldatzea, erabakiak hartzea eta ezagutzamultzo antolatua aurkitzea da. Hori burutzeko, irekia eta malgua den jarduera sistematikoa ematen da (Bisquerra, 2004). Gainera, ikerketa kualitatiboan, elkarrizketak mundua elkarrizketatuaren ikuspegitik ulertzeko aukera ematen du (Álvarez-Gayou, 2003). Ikerketa kuantitatiboetan aldiz, aurretik pentsatuak eta erabat definituak dauden estatistika teknikak erabiltzen dira, testak eta proba objektiboak esaterako (Jimenez, Lukas eta Santiago, 2018).

Metodo mistoan, ikerketa bakar batean metodo kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatzen dira. Bi metodoen nahasketa, aldi berean edo une desberdinetan eman daiteke eta biak garrantzi berekoak izan daitezke. Metodo mistoak, bi metodoen (kualitatibo eta kuantitatibo) indarguneak aprobetxatzen ditu, eta ondorioz, izan ditzaketen hutsuneak konpentsatzea lortzen da (Jimenez, Lukas, eta Santiago, 2018).

3.2.1. Helburuak

Lan honen helburu nagusia, aipatu izan den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko batean ematen den eskolaren eta familiaren harremanaren errealitatea ezagutzea da.

Ikerketa honek, helburu orokorrak izateaz gain, espezifikoak ere baditu, hala nola, eskola-familia harremana izateko dauden erak aztertzea, eskolan gehien ematen den harreman mota ezagutzea, bi instituzioen arteko harremanean dagoen harremanaren maiztasuna aztertzea eta eskola eta familia daukaten harremanarekin gustura dauden ikertzea. Familia eta eskola elkarlanean aritzea beharrezkoa izateaz gain, haurrarentzat onuragarria baita bere garapen fisiko, emozional eta sozialerako, baita bere garapen kognitiborako ere (Hik Hasi, 2014). Beraz, hauek dira lanaren helburuak:

Helburu orokorra:

1. Eskola eta familia harremanaren errealitatea ezagutzea.

Helburu espezifikoak:

- 1.1. Eskola-familia harremana izateko erak aztertzea.
- 1.2. Eskolan gehien ematen den harreman mota ezagutzea.
- 1.3. Bi instituzioen arteko harremanean dagoen harremanaren maiztasuna aztertzea.
- 1.4. Eskola eta familia daukaten harremanarekin gustura dauden ikertzea.

3.2.2. Partaideak

Ikerketako partaideak eskolako 5 urteko gelako haurren familiak, irakasle tutorea, Haur Hezkuntzako irakasleak eta Haur Hezkuntzako koordinatzailea dira:

- ***Haurren familiak:*** Eskolaren eta familiaren arteko harremanaren errealitatea aztertzea helburu orokorra izanik, gurasoen iritzia jasotzea ezinbestekoa izan da ikerketa aurrera atera ahal izateko. Gainera, familien iritzia jasotzeak eskolatik jasotako informazioa kontrastatzeko aukera ematen du.
- ***Irakasle tutorea:*** Errealitatearen beste aldea zein den jakiteko irakasle tutoreari elkarrizketa egitea beharrezkoa izan da ikerketaren helburuak betetzeko.
- ***Haur Hezkuntzako irakasleak:*** Ikastetxearen errealitatea zein den ezagutzeko eskola osatzen duten Haur Hezkuntzako gainerako irakasleen iritzia jasotzea garrantzitsua da lana borobiltzeko.
- ***Haur Hezkuntzako koordinatzailea:*** Ikerketaren helburuak lortzeko informazio gehiago eskuratu ahal izateko, Haur Hezkuntzako koordinatzaileari ere elkarrizketa bat egin zaio, horrela datuen analisi sakonagoa egin ahal izan da.

3.2.3. Datu bilketarako tresnak

Galdetegi eta elkarrizketa bidez, datuak modu honetan batu dira:

- **Elkarrizketak:** Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako tutoreari sakoneko elkarrizketa erdi-estrukturatua egin zaio, bertan aurretik prestatutako galdetegi bat bete da ². Irakasleak galdera guztiak askatasun osoz erantzuteko aukera izan du, baita bere iritzia emateko aukera ere.
Halaber, Haur Hezkuntzako koordinatzaileari ere sakoneko elkarrizketa erdi-estrukturatua egin zaio aurrez prestatutako galdeketa batekin. Galdeketa biak audioz grabatuak izan dira ³.
- **Galdetegiak:** Gurasoei ⁴ eta Haur Hezkuntzako etapako irakasleei ⁵ galdetegi erdi-estrukturatua pasatu zaizkie. Galdetegian, idazteko aukera eduki dute, galdetutakoaren inguruan ahal bezain informazio gehiena jaso ahal izateko.

Elkarrizketari dagokionez, Intxaustik (2014), elkarrizketa hezigarriak ere badaudela defendatzen du. Elkarrizketak, aurrez aurreko komunikazio lanabesak dira (Mondragon Unibertsitatea, 2007). Hauek, komunikaziorako momentu aproposak dira, eta gurasoenganako hurbilketa, informazio trukea eta parte-hartzea sustatzen duen konfiantza-giroa sortzen laguntzen dute. Hainbat autorek elkarrizketak komunikazio-une pribilegiatuak direla defendatzen dute (Palacios eta Paniagua, 1992; Bassedas, Huguet eta Solé, 1998; Palacios eta Paniagua, 2005; eta Tabera, 2005). Elkarrizketa hauetaz gain, egunerokotasuneko hartu-emanak ere garrantzitsuak direla azpimarratzen da (Intxausti, 2014).

Galdetegiak, hezkuntza eremuan aukera interesgarri eta baliagarriak dira arazo edo egoera jakin bat ikertzeko helburuarekin (Sanjurjo, 2011). Ballesterek (2001) galdetegi estrukturatua eta erdi-estrukturatua daudela defendatzen du. Ikerketa egiteko erabilitako galdetegiak eta elkarrizketak erdi-estrukturatua dira, partaideek galderak askatasunez erantzuteko aukera izan baitute, beraien iritzi eta ideiak azaltzeko aukera edukiz.

² Ikus 2. Eranskina. Irakasleari egiteko elkarrizketa.

³ Ikus 3. Eranskina. Haur Hezkuntzako koordinatzaileari egiteko elkarrizketa.

⁴ Ikus 4. eta 5. Eranskinak. Familientzako galdetegi Euskaraz. Familientzako galdetegi Gazteleraz.

⁵ Ikus 6. Eranskina. Irakasleei egiteko galdetegiak.

3.2.4. Datuen kategorizazioa

Galdetegiak sortzeko momentuan lanaren helburuak kontuan hartu eta lau kategoria ezberdin sortu dira: errealitatea, harremana, maiztasuna eta asebetetzea. Kategorია horiek kontuan hartuta elkarrizketan eta galdetegian egiteko galdera desberdinak planteatu eta hauek aintzat harturik ikerketaren emaitzak atera dira.

3.2.5. Denboralizazioa

Lana aurrera eramateko honako kronograma jarraitu:

Kronograma

<i>Iraila 2020</i>	Aurkibidea definitu	GrALaren tipologia erabaki	Izenburua jarri	GrALaren justifikazioa idatzi
<i>Urria 2020</i>	Marko teorikoa definitu		Informazioaren bilaketa sakona egin	
<i>Azaroa 2020</i>	Marko teorikoa idazten hasi		Helburuak planteatu	
<i>Abendua 2020</i>	Hitz gakoak definitu	Marko teorikoa osatu	Metodologia erabaki	Ikerketarako tresnak planteatu eta sortzen hasi
<i>Urtarrila 2021</i>	Marko teorikoa osatu	Ikerketarako tresnak sortu	Metodologia osatzen joan	
<i>Otsaila 2021</i>	Ikerketarako tresnekin informazioa jaso, landa lana egin			
<i>Martxoa 2021</i>	Galdetegiekin bukatu	Ikerketaren datuak jasotako datuak arakatu		Datuak antolatu
<i>Apirila 2021</i>	Datuak aztertu: interpretatu eta emaitzak idatzi	Ondorioak atera	Abstrakta idatzi	Marko teorikoari azken ukituak eman
<i>Maiatza 2021</i>	Defentsa eta aurkezpenarako euskarriak prestatu		Txosten idatziaren azken bertsioa bidali	
<i>Ekaina 2021</i>	Defentsa			

Taula 1: Kronograma

Iturria: Nik sortua

3.3. Etika eta datu pertsonalen babesa

Elkarrizketatuen datu pertsonalak babeste aldera Baimen Informatuaren Orria irakurri eta betetzeko eskatu zaie elkarrizketatuak izan diren guztiei ⁶. Horrez gain, hainbat irizpide etiko hartu dira kontuan ikerketan zehar:

- Elkarrizketatuak pertsona gisa tratatuak izango dira eta inoiz ez zerbait lortzeko bitarteko bezala (Alcaraz, Noreña, Rebolledo eta Rojasen, 2012).
- Partaideen eta ikerketa egiten den eskolaren identitatea babestuko da.
- Grabaketak konfidentziasunez gordeak izango dira eta parte-hartzen duten pertsonen zerbait edo izengoiti bat esleitu zaie (Alcaraz, Noreña, Rebolledo eta Rojasen, 2012).
- Ikerketaren erantzule osoa ni izango naiz.
- Parte-hartzen dutenen iritzia une oro errespetatuak izango dira.
- Ateratako datuak, lanerako soilik erabiliak izango dira, beti parte-hartzaileen datu pertsonalak babestuz.

4. Emaitzen analisia eta interpretazioa

Atal honetan, ikerketan ateratako emaitzak kategoria bihurtuta azalduko dira, kategoria bakoitza osatzeko egindako galderarekin. Lau kategoria desberdin bereizi dira: Familien eta ikastetxearen arteko harremanaren *errealitatea* (Familien eta ikastetxearen arteko harremanaren errealitatea nolakoa da?), familiaren eta ikastetxearen arteko *harremana* (Nolako harremana dago eskolaren eta familiaren artean?), bi instituzioak elkartzen diren *maiztasuna* (Bi instituzioak ze maiztasunekin elkartzen dira?) eta familiak eta eskolak sentitzen duen *asebetetzea* (Asebetetzea nolakoa izango da?).

4.1. Errealitatea


Errealitateari dagokionez, esan beharra dago orokorrean familiek zein irakasleek errealitate antzekoa bizi dutela. *Irakasle tutoreak*, familiek umeen hezkuntzan parte-hartzea nahiko ona dela sentitzen du, horren arrazoietako bat umeen motibazioa izan daiteke, “umeak oso motibatuta daude eta familiak animatzen eta mugitzen ari dira eta gurasoek esaten didate ba hori, beti dabiltzala hor “etxeko lanak” egiten.” (E1, 3:13).

Haur Hezkuntzako koordinatzaileak eskola bezala familien eta eskolaren arteko harremana zaintzen ahalegintzen direla aipatzen du. Familiak egun berezietara eta

⁶ Ikus 7. Eranskina: Baimen Informatuaren Orria.

eskolako proiektuetara parte-hartzen animatzen dituzte, hein handi batean haien laguntza bilatzen ahalegintzen dira, familia-eskola harremana indartuz. Harremana negatiboa bihurtzen hasten denean, pasioz eta errespetuz hitz eginez hau hobetzen ahalegintzen dira, baina beti muga batzuk zainduz, “limite batzuetatik ezin da pasatu eta orduan ba ez badugu lortzen familia batzuekin ba bueno, beste medio batzuk ditugu, ikuskariarekin hitz egin, edo bueno, laguntza eskatu Berritzegunean, zelan enfokatu jakiteko. Nik uste dut, saiatzen garela beti ditugun medio guztiak erabiltzen” (E2, 4:22).

Haurren familiei dagokienez, guztiak irakaslearekin bilerak izaten dituztela aipatzen dute. Bilera hauek ikasturte hasiera eta bukaeran izaten dira, asteazkenero gainera irakaslearekin batzeko aukera izaten dute. Bilerez gain, 17 familietatik hamarrek eskolako ekintzetan parte-hartzen dutela aipatzen dute, Guraso Elkartean, Organo Gorenean, Eskola Kontseiluan eta eskolatik eskakizun bat egiten denean esaterako⁷. Guraso batek gainera familien parte-hartzearen garrantzia aipatzen du, “Gurasoen parte-hartzea bultzatzea oso garrantzitsua eta ezinbestekoa iruditzen zait” (G1., galdetegia, 2021/03/23).



Grafikoa 1. Eskolan parte-hartzen dute eta eskolan zertan parte-hartzen dute.
Iturria: Nik sortua.

Haur Hezkuntzako irakasleen kasuan Haur Hezkuntzako bi urteko haurren familien eta eskolaren artean egoten da harremanik handiena, adin horretan, eskola eta familia elkarrengandik hurbilago daude, umeek eskolara egokitze garaia bizi dutelako.

4.2. Harremana

Irakasle tutoreak familiekin harremana izateko urtean zehar izaten dituzten bilerez gain korroea erabiltzen du. Gainera, aurtengo egoera berezia denez, mezuetan argazki eta bideoak bidaltzen ditu, familiek haurrek eskolan egiten dutena ikusi ahal izateko.

⁷ Ikus Grafikoa 1. Eskolan parte-hartzen dute eta eskolan zertan parte-hartzen dute.

Haur Hezkuntzako koordinatzaileak eskola moduan gurasoentzat beti zabalik daudela aipatzen du, eta hori eskola bezala beraientzat oso garrantzitsua dela. Familien aldetik beraien denbora eskaintzea eskertzen du, aurtengo adibidea jarritz, “oraingo eskolako kontseilua beteta dago, parte-hartzen dute eta beno, hori eskertzekoa da”. (E2, 1:27).

Haurren 18 **famili**etatik hamabostek irakaslearekin bilerez gain beste erabateko harremanak izaten dituztela aitortu dute. Gehiengoaren harremana posta elektronikoz ematen da, hala ere, eskolako sarrera-irteeretan elkartzen direla ere aipatu dute, baita irakaslearekin telefonoz hitz egiten dutela. Familia batek, eskolaren eta familien arteko harremana handitu ahal izateko proposamen bat egiten du, “harremana handitzeko ume kopurua jaitsi egin beharko zen” (G2., galdetegia, 2021/03/24).

Haur Hezkuntzako gainerako irakasleak familiarekin harreman sendoa izaten ahalegintzen dira, beraiekin bilduz eta argazki eta bideoak bidaliz. Horrez gain, batez ere bi urteko haurren kasuan harremana desberdina izaten da, ume hauek arratsaldeko loa eskolan bertan egiten dutelako eta pardela etxetik ekarri behar izaten dutelako esaterako.


4.3. Maiztasuna

Familiarekin bilerak zenbatean behin izaten dituzten galdetuta, **irakasle tutoreak** ikasturtean hiru izaten dituztela aipatzen du. Lehenengo bilera, bilera orokorra izaten da eta ondoren urtarrilaren amaieran edo otsailaren hasieran banakako lehenengoa eta maiatzaren amaiera edo ekainaren hasieran bigarrena. Tartean, asteazkeneko guraso eguna izaten da. Horrez gain, irakasle tutoreak berarekin hitz egiteko edozein momentu daukatela esaten die gurasoei. “nik beti argi esaten diet nahi dutenean edozein momentutan niri abisatzeko eta adostuko dugula, naiz eta asteazkena ez izan, edozein momentutan geldituko garela”. (E1, 00:45).

Eskolako sarrera eta irteeretan ere biltzen dira, batez ere irteeretan, lasaiago dauden momentua izaten baita. Eta irakasleak zerbait ezberdina ikusten badu gurasoak deitzen ditu, ikusitakoa komentatzeko.

Haur Hezkuntzako koordinatzailearen esanetan, eskola bezala familiei irekita daude eta beti beraiekin lan egiteko prest aurkitzen dira.

Haurren familiak irakasle tutoreak esandakoarekin bat datoz, eta beraiek ere urtean hasierako bilera orokorra eta ikasturtean zehar bi izaten dituztela diote. Bilera horietaz gain, umearen inguruan zerbait esateko dutenen irakaslearekin biltzen dira, hala ere 18 familiatik seik soilik proposatu izan dituzte bilerak ⁸. Bilera hauek positiboki baloratzen dituzte “Muy buenas, salgo más tranquila” (G3., galdetegia, 2021/03/23).



Grafikoa 2. Familien bilera proposamenak.
Iturria: Nik sortua.

Haur Hezkuntzako irakasleek urtearen hasieran bilera orokor bat izaten dutela aipatzen dute. Ondoren, ikasturtean zehar bi bilera izaten dituzte. Horrez gain, umeak eskolara egokitzen dauden momentuetan gehiago batzen dira familiekin, egokitze prozesua umearentzat errazagoa izan dadin.

4.4. Asebetetzea


Irakasle tutorea gelan ematen den eskolaren eta familiaren arteko harremanarekin oso pozik dago. Familiek umeak pozik ikusten dituztela aipatzen du, eta horregatik etxean beraiekin motibatuta lan egiten dutela. Familien aldetik zerbait faltan botatzen duen galdetutakoan batzuetan familiek kanpotik eskola barruan gertatzen dena ulertzen ez dutela onartzen du. Momentu horretan profesional bezala modu batean edo bestean gurasoei denbora emanaz beraiengana hurbildu behar dela dio.

Haur Hezkuntzako koordinatzaileari ea eskola bezala modu egokian lanean dabilzala galdetutakoan, baietz erantzun du. Zikloen artean informazioa elkar-trukatzen ahalegintzen dela adierazten du, duen informazioa izaten dituzten bileretara eraman, bertan gainontzeko irakasleen zalantzak eta iritziak entzun eta ondoren bueltan ekartzeko. Eskolaren eta familiaren artean harreman negatiboa dagoenean zer egiten duten ere galdetu zaio. Familiak pasioz eta errespetuz tratatzen dituztela adierazten du, beti irakasleen postua zein den ahaztu gabe. Mugak argi dituzte, horregatik familia

⁸ Ikus Grafikoa 2. Familien bilera proposamenak.

batzuekin arazoak konpondu ezin direnean ikuskariarekin hitz egin edo Berritzegunean laguntza eskatzen dute, arazoa nola enfokatu jakiteko.

Haurren familiak orokorrean eskolan duten parte-hartzearekin gustura egon arren 18 familietatik bik gehiago parte-hartzea nahiko lukete. Batek denbora falta arrazoi jarrita gehiago parte-hartu ahal izatearen zalantzak ditu. Eskolaren aldetik faltan zerbait botatzen duten galdetutakoan 18tik hiruk hartu eman gehiago egotea beharrezkoa ikusten dute, batek umeen garapenaren inguruko informea eta beste batek kurtso hasieran informazio falta sentitzen du ⁹ “Kurtso hasierako bilera oso berandu dela uste dut. Informazio falta somatzen dut gehien bat kurtso hasieran” (G4., galdetegia, 2021/03/22) gehiengoak ordea ez du ezer faltan botatzen. Zerbait faltan botatzen duten galdetu ondoren umeen heziketan parte-hartzeko aukera gehiago edukitzea gustatuko litzaieken galdetu zaie familiei, bostek baietz erantzun dute eta batek nahi izanez gero parte-hartzeko aukerak badaudela aldarrikatzen du.



Grafikoa 3. Eskolaren aldetik zerbait faltan botatzen dute.
Iturria: Nik sortua.

Haur Hezkuntzako gainontzeko irakasleek salbuespenak egon arren orokorrean familiak gogotsu ikusten dituzte. Irakasle batek momentu batzuetan gurasoen aldetik enpatia falta sentitzen duen arren familiak inplikatuak daudela ikusten du.

Bukatzeko, emaitzak azaltzeko erabilitako lau kategoriak kontuan hartuz, kategorizazio orokorren taula sortu da ¹⁰.

⁹ Ikus Grafikoa 3. Eskolaren aldetik zerbait faltan botatzen dute.

¹⁰ Ikus 8. Eranskina. Kategorizazio orokorren taula.

5. Ondorioak

Azkenik, ondorioen eztabaida eta ikerketaren mugak eta etorkizunerako lan-ildoak azalduko dira.

5.1. Ondorioen eztabaida

Ikerketarako iker-galdera “*Eskolaren eta familien artean nolako harremana dago?*” izan dela kontuan harturik, iker-galdera horretatik ateratako helburuak banan-banan aztertu dira, bete direla egiaztatzeko.

Helburuei dagokienez, lanaren helburu orokorra *eskolaren eta familiaren harremanaren errealitatea ezagutzea* dela kontuan harturik, orokorrean guztiz bete dela esan daiteke.

Helburu orokorraz gain, lanak 4 helburu espezifiko ere baditu. Lehenengoa, *eskola-familia harremana izateko erak aztertzea* izan da. Era desberdinak aztertuak izan dira eta *familiak mezu bidez, bilerekin, aurrez-aurreko hizketaldiekin, esaterako, harremantzen* direla ondorioztatu da.

Bigarren helburu orokorra, *eskolan gehien ematen den harreman mota ezagutzea* izan da. *Eskolaren eta familiaren artean gehien ematen den harreman mota aurrez-aurreko bilerak dira*, hala ere, bien artean beste era bateko harremanak ere izaten dituzte, mezuak eta sarrera-irteeretako hizketaldiak, esaterako.

Hirugarren helburuarekin jarraituz, *bi instituzioen arteko harremanean dagoen maiztasuna aztertu* da. Ikerketan *eguneroko sarrera-irteeretan topo egiteaz gain, urtean hiru aldiz biltzen direla ikusi da*. Horrez gain, familia bakoitzak beharrezkoa duenean, maiztasun gehiagorekin biltzeko aukera du.

Azkenik, laugarren helburua, *eskola eta familia daukaten harremanarekin gustura dauden ikertzea* izan dela kontuan harturik, *familien gehiengoa eta ikastetxea, irakaslea zehazki, duten harremanarekin gustura azaldu direla ikusi da*.

Era berean, ikerketan ateratako emaitzen interpretazioari erreparatuz, ondorioztatu daiteke, ikerketa egin den ikastetxeko *eskolaren eta familiaren arteko harremana positiboa dela*. Familiek eskola instituzio ireki bezala ikusten dute, zalantzak edo arazoak izatekotan bertara jotzen baitute. Tuesta, Girón eta Navarrok (2012), gainera, familiak eskolatik gertu sentitzearen garrantzia aldarrikatzen dute. Beraien esanetan, familiak eskolatik gertu sentitzen direnean, parte-hartzeko konpromiso handiagoa izaten

dutelako. Halaber, parte-hartze horrek, umeen heziketa-kalitatea handitzen du (Jurado, 2009).

Parte-hartzeari dagokionez, INCLUD-ED (2011) kontuan hartuta, bertan azaltzen diren bost parte-hartzeen artean (parte-hartzea informatiboa, kontsultak soilik egitekoa, erabakitzailea, ebaluatzailea eta hezigarria) *familia gehienen partaidetza tipologia, parte-hartze hezigarria* da. Horren adibide garbia, bilerez gain gurasoen erdiak baino gehiagok eskolako proiektuetan parte-hartzen duela da, Organo Gorenean edota Eskola Kontseiluan, esaterako. Gainontzeko *familia batzuek kontsultak soilik* egiten dituzte, eskolarengandik informazioa jaso arren, ekarpen gutxi egiten dituztelako.

Umeen heziketaz ari garenean, eskola eta familia noranzko berdinean joatea ezinbestekoa da (Villa, 2007). Kolaborazioan eta konfiantzan oinarritutako lankidetzak egoteko bien artean loturak ezarri behar dira. *Ikastetxean, noranzko berdinean lanean joaten ahalegintzen dira*, irakasleak gurasoei nahi duten guztietan berarengana jotzeko aukera ematen die, eta guraso batzuk aukerak aprobetxatuz, bilerak eskatu izan dituzte. Hori gutxi balitz, familiek umeekin batera eskolan egiten dituzten proiektuak etxean lantzen dituzte, horrela, haurrari etxean ere bere garapen pertsonalean lagunduz.

Batzuetan baina, bien arteko harremanean zailtasunak egoten dira. Denbora falta dela eta, familiek ez dute nahi beste parte-hartzen, hala ere, Llevot eta Bernarden (2015) ustez, sarri denbora falta aitzakia gisa erabiltzen da. Benetako arrazoia medio, familia bakoitzaren egoera desberdina da, baita garai batetik honako familia eta eskola ulertzeko modua ere (Muñoz, Fernández eta Vázquez, 2007). Horregatik, *familia bakoitzaren egoera ulertu eta lankidetzan umearen garapen egokiena lortzearen alde egin behar da*.

5.2. Ikerketaren mugak eta etorkizunerako lan-ildoak

Lana egiteko izan diren mugei dagokienez, hiru muga nagusi nabarmendu behar dira: koronabirusa, errealitate idilikoa eta lagin txikia.

Koronabirusa dela eta, lana osatzeko gurasoei egindako galdetegi guztiak idatziz izan dira. Horrenbestez, familia bakoitzari sentitzen duena idazteko aukera eman arren, aurrez aurre elkarrizketak egiteak ikerketari informazio askoz gehiago emango lioke, familiek beraien iritzia sakonago plazaratzeko aukera izango bailukete.

Lanean izandako beste mugetako bat errealitate “idiliko” bat bizi izan dela da. Eskolako irakasle tutoreak behin baino gehiagotan aipatu izan du aurtengo taldean familia eta ikastetxearen arteko harremana ezin hobea zela. Gurasoak umeen heziketan, eskolako proiektuetan edota laguntza eskatzen une oro inplikatzeko direla aipatu du eta horrek ikerketaren emaitzetan eragin zuzena izan du, ikerketa beste talde batean egingo balitz, emaitza guztiz desberdinak ateratzea posible izango litzatekeelako.

Aipatzekoa da baita ere, laginari dagokionez, lagin nahiko txikia izan dela, ikerketa ikastetxe eta batez ere ikastalde konkretu bakar batean zentratu baita. Horrek esan nahi du, ikerketa bera ikastetxe berdineko beste ikastalde batean, testuinguru desberdin bateko ikastetxeetan edota lerro ezberdinak dituen ikastetxe batean zentratuko balitz, posible litzatekeela ikerketaren emaitzak guztiz aldatzea.

Muga hauek ezagututa, etorkizunerako, emaitzak aberaste aldera, ikerketa berdina beste testuinguru bateko ikastetxe batean egitea posible da, bi errealitateak ikusi ondoren, hauek konparatu ahal izateko. Konparazio horretatik, gainera, emaitzak desberdinak izatekotan, hobekuntza proposamenak egiteko aukera dago. Proposamen horrekin, ikastetxean aurrera eramaten diren praktikak gainontzeko instituzioetan txertatu daitezke, familiaren eta eskolaren arteko harremana indartzen laguntzeko baliabideak proposatuz.

Honekin batera, eskolaren eta familiaren artean elkarlanean aritzeak haurraren dakartzan onurak berriz aipatzea ezinbestekoa da, bien arteko erlazioa ikaslearen hezkuntza prozesuan oso garrantzitsua baita (Garreta, 2013). Familiek eskolan parte-hartzen dutenean, umeen eskola porrotean eragina du, hau gutxitu egiten delako (Pérez, Rodríguez eta Sanchez, 2001). Gainera, bi instituzioak haurrari babesa eta laguntza ematen ahalegintzen direnean, umearen garapena erraztu egiten da (Sosa, 2009). Horregatik, eskolaren eta familiaren arteko harremanaren errealitatea ikertzea ezinbestekoa da, umearen heziketan parte-hartzen duten eragile hauek, elkarlanean, umearen garapen integral optimoaren alde egiteko. Horrenbestez, horrelako ikerketak egitea garrantzitsua da harreman hori ezagutzeko, eta ondorioz, beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Aguado, L. (2010a). Escuela inclusiva y diversidad de modelos familiares. *Revista iberoamericana de educación*, 53-6, 1-11. Hemendik hartua: <https://rieoei.org/historico/deloslectores/3377Aguado.pdf>
- Aguado, L. (2010b). Familia-ereduak gaurko eskolan. *Tantak*, 22 (1), 127-148.
- Alcaraz, N., Noreña, A. L., Rebolledo, D. eta Rojas, J. G. (2012). Aplicabilidad de los criterios de rigor y éticos en la investigación cualitativa. *Aquichan*, (12), 263-274.
- Alonso, J. (2005). *Motivar en la escuela, motivar en la familia*. Morata.
- Álvarez-Gayou, J. L. (2003). *Cómo hacer investigación cualitativa*. Paidós.
- Ballester, L. (2001). *Bases Metodológicas de la Investigación Educativa*. Universitat de les Illes Balears.
- Bassedas, E., Huguet, T. eta Solé, I. (1998). *Aprender y enseñar en educación infantil*. Graó.
- Bisquerra, R. (2004). *Metodología de la investigación educativa*. La Muralla, S. A.
- Comellas, M. J. (2009). *Familia y escuela: compartir la educación*. Graó.
- Dominguez, S. (2010). La educación, cosa de dos: La escuela y la familia. *Revista digital para profesionales de enseñanza*, 8, 1-15.
- De León, B. (2011). La relación familia-escuela y su repercusión en la autonomía y responsabilidad de los niño/as. *XII congreso internacional de teoría de la educación*.
- Eusko Jaurlaritza (2003). *Familia-ereduei eta familia-politikei buruzko txostena*. Hemendik hartua: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/tipos_de_familia/eu_tipos/adjuntos/INFORME%20MODELOS%20FAMILIA%20DEF%20PARLAMENTO%2024-02-2003_EUSK.PDF
- Euskal Estatistika Erakundea (data gabe). *Familia*. Hemendik hartua: https://www.eustat.eus/documentos/opt_0/tema_395/elem_1755/definicion.html

- Garreta, J. (2008). *La participación de las familias en la escuela. Las asociaciones de madres y padres de alumnos*. CIDE/CEAPA.
- Garreta, J. (2013). La participación de las familias en la escuela: una cuestión pendiente, *Documentación Social*, 171, 101-124. Hemendik hartua: <https://repositori.udl.cat/bitstream/handle/10459.1/59797/021799.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- González, M. (2009). Nuevas familias, nuevos retos para la investigación y la educación. *Cultura y educación: revista de teoría, investigación y práctica*, 21, 381-389.
- Hik Hasi. (2010). Familia eta eskola. Bi instituzio konplexu. *Hik Hasi*. Hemendik hartua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100103/familia-eta-eskola-bi-instituzio-konplexu>
- Hik Hasi. (2014). Bigarren etxea. Familia eta eskola. *Hik Hasi*. Hemendik hartua: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20140107/bigarren-etxea-familia-eta-eskola>
- INCLUD-ED Consortium. (2011). *Actuaciones de éxito en las escuelas europeas*. Instituto de Formación del Profesorado, Investigación e Innovación Educativa (IFIIE). Ministerio de Educación.
- Intxausti, M. J. (2014). *La entrevista: construir la relación con las familias (0-6)*. Graó.
- Jimenez, O., Lukas, J. F. eta Santiago, K. (2018). Metodo mistoak Hezkuntza-ikeruntzan. *Tantak*. 30 (1), 87-111.
- Jurado, C. (2009). La familia y su participación en la comunidad educativa. *Revista Digital Innovación y Experiencias Educativas*, 23, 1-9.
- Llevot, N. eta Bernad, O. (2015). La participación de las familias en la escuela: Factores clave. *Revista de la Asociación de Sociología de la Educación*. 8 (1), 57-70.
- Mondragon unibertsitatea. (2007). Familia eta eskola. *Jakingarriak*. 60/61, 1-81. Hemendik hartua: <https://www.mondragon.edu/documents/20182/61440/jakingarriak-60-61.pdf>

- Muñoz, G. J., Fernández, J. eta Vázquez, M. A. (2007). Dificultades de la participación de los padres en las actividades escolares de sus hijos. *Revista Iberoamericana de Producción Académica y Gestión Educativa*. 4.
- Palacios, J. eta Paniagua, G. (1992). *Colaboración de los padres*. Ministerio de Educación y ciencia.
- Palacios J. eta Rodrigo M. J. (2001). *Familia eta giza garapena*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Palacios, J. eta Paniagua, G. (2005). *Educación infantil: respuesta educativa a la diversidad*. Alianza Editorial.
- Pérez, V., Rodríguez, J.C eta Sánchez, L. (2001). *La familia española ante la educación de sus hijos*. Fundación La Caixa
- Rodrigo, M. J. eta Palacios, J. (2001). *Familia eta giza garapena*. Udako Euskal Unibertsitatea: Bilbo.
- Romero, M. J. (2010). *Familia y escuela*. Hemendik hartua: <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/ehu/63228>
- Sanjurjo, L. (2011). Los Dispositivos para la Formación profesional. *VI Jornadas Nacionales sobre la Formación del Profesorado*.
- Secretaría General Técnica. (2015). *Las relaciones entre familia y escuela. Experiencias y buenas prácticas*. Secretaría General Técnica. Centro de Publicaciones. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- Serdio, C. (2008). Familia y escuela: del desencuentro a la relación colaborativa. *Papeles Salmantinos de Educación*. 10, 85-100.
- Sosa, J. A. (2009). Evolución de la relación familia-escuela. *Tendencias pedagógicas*. 14. 251-265.
- Tabera, M. V. (2005). Sobre las entrevistas con las familias ed educación infantil. *Aula infantil*. 25, 12-15.
- Tuesca, V., Girón, M., eta Navarro, L. (2012). Estrategia educativa para la participación de los padres en compromisos escolares. *Escenarios*. 10, 119-127.

Villa, J. (2007). Familia y escuela: una relación inevitable. *Papeles Salmantinos de Educación*. 8, 229-252.

7. Eranskinak

1. Eranskina: INCLUD-ED taula

1. INFORMATIVA	Las familias reciben información sobre las actividades escolares, el funcionamiento del centro y las decisiones que ya se han tomado.
	Las familias no participan en la toma de decisiones en el centro.
	Las reuniones de padres y madres consisten en informar a las familias sobre dichas decisiones.
2. CONSULTIVA	Los padres y madres tienen un poder de decisión muy limitado.
	La participación se basa en consultar a las familias.
	La participación se canaliza a través de los órganos de gobierno del centro.
3. DECISORIA	Los miembros de la comunidad participan en los procesos de toma de decisiones, teniendo una participación representativa en los órganos de toma de decisión.
	Las familias y otros miembros de la comunidad supervisan el rendimiento de cuentas del centro en relación a resultados educativos que obtienen.
4. EVALUATIVA	Las familias y otros miembros de la comunidad participan en el proceso de aprendizaje del alumnado, ayudando a evaluar su progreso educativo.
	Las familias y otros miembros de la comunidad participan en la evaluación general del centro.
5. EDUCATIVA	Las familias y otros miembros de la comunidad participan en las actividades de aprendizaje del alumnado, tanto en horario escolar como extraescolar.
	Las familias y otros miembros de la comunidad participan en programas educativos que dan respuesta a sus necesidades.

Iturria: INCLUD-ED, 2011.

2. Eranskina: Irakasleari egiteko elkarrizketa

- Gurasoekin bilerak zenbatean behin egiten dituzu?

- Kasuaren arabera, gehiago edo gutxiago batzen zara gurasoekin?

- Bilerak normalean zuk deitzen dituzu edo gurasoek ere eskatzen dituzte?

- Haurren informazio trukea egiteko bilerez gain elkarrizketak, mezuak... bidaltzen/izaten dituzu?

- Nola/zelan?

- Gurasoek umeen hezkuntzan parte-hartzen dutela sentitzen duzu?

- Familien aldetik zerbait faltan botatzen duzu? Inplikazio gehiago, laguntza, enpatia...

- Gurasoek eskolan eta ikasgelan orokorrean parte-hartzen dute?

- Gurasoak parte-hartzeko gogotsu ikusten dituzu?

3. Eranskina: Haur Hezkuntzako koordinatzaileari egiteko elkarrizketa

- Eskola bezala, familia eta eskola harremanari garrantzia ematen diozue? Non ikus daiteke hori?

- Familiek nola parte-hartzen dute eskolan?

- Familiek nahi duten beste aldiz parte-hartzeko aukera daukate edo mugatua da? Zenbatero hartzen dute parte familiek?

- Eskolaren aldetik familiei zer eskatzen diezue?

- Eta familiek, zer eskatzen dizuete?

- Parte-hartzea bultzatzea positiboa dela uste duzue eskola bezala?

- Familia-eskola harremana negatiboa denean zer egiten duzue?

- Familiak orokorrean haurren heziketan inplikatuak ikusten dituzue?

- Orokorrean, egoki lanean zabilizatela uste duzu edo hobetu daiteke? Proposamenik?

4. Eranskina: Familientzako galdetegia Euskaraz

Nagore Angiozar naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko *Bilboko Hezkuntza Fakultatean, Haur Hezkuntza* Gradu ikaslea. 4. Mailan nagoela kontuan harturik Gradu Amaierako Lana (GRAL) egiten ari naiz. Lanaren helburua eskolaren eta familiaren arteko harremanaren errealitatea ezagutzea da, eta horretarako ikerketa bat burutzen ari naiz. Hori dela eta, jarraian egindako galderak erantzutea eskertuko nizuke, lortutako datuak lana osatzeko oso baliogarriak izan daitezkeelako.

Galdetegiarekin lorturiko datuak konfidentziasunez gordeak izango dira. Ateratako datuak, lanerako soilik erabiliak izango dira, beti parte-hartzaileen datu pertsonalak eta identitatea babestuz.

- Eskolan parte-hartzen duzu?
 - Ez
 - Bai
 - Erantzuna baiezkoa bada, nola/zertan?

- Irakaslearekin bilerak izaten dituzu?
 - Ez
 - Bai
 - Noiz/nola?

- Zenbatero izaten dituzu bilerak?

- Zuk proposatu izan duzu bileraren bat? Horrela izatekotan nola izan den azaltzea posible izango litzateke?

- Bilerez gain, beste era bateko harremanak izaten dituzu irakaslearekin (elkarrizketak, mezuak...)?

Ez

Bai

- Erantzuna baiezkoa bada, zenbatero eta nola?

- Eskolan guraso bezala duzun parte-hartzea nahikoa dela uste duzu?

- Zerbait faltan botatzen duzu?

- Umeen heziketan, eskolarekin batera, parte-hartzeko aukera gehiago izatea gustatuko litzaizuke?

Zerbait gehitzea nahi izanez gero:

Eskerrik asko ikerketa honetan parte-hartzeko erabakia hartu eta zure denbora eskaintzeagatik.

5. Eranskina. Familientzako galdetegia Gazteleraz

Soy Nagore Angiozar, estudiante de Grado en *Educación Infantil* en la *Facultad de Educación de Bilbao* en la Universidad del País Vasco. Teniendo en cuenta que estoy en el último año, estoy realizando el Trabajo de Fin de Grado (TFG). Mi TFG tiene como objetivo investigar y conocer la realidad de la relación entre la escuela y la familia. Por ello, agradecería que respondiera a las siguientes preguntas, ya que los datos obtenidos pueden ser muy valiosos para completar el trabajo.

Los datos obtenidos con el cuestionario serán confidenciales. Los datos serán utilizados exclusivamente para el trabajo, protegiendo siempre los datos personales y la identidad de los participantes.

- ¿Participas en la escuela?

No

Si

- ¿Cómo /en qué?

- ¿Te sueles reunir con la profesora?

No

Si

- ¿Cuándo/cómo?

- ¿Cada cuánto tiempo tenéis reuniones?

- ¿Has propuesto alguna reunión? Si es así, ¿Sería posible explicar cómo ha sido?

- Además de las reuniones, ¿mantienes otro tipo de contactos con el profesor (entrevistas, mensajes...)?

- No
- Si

- En caso afirmativo, ¿cuántos y cómo?

- ¿Crees que tu participación como padre/madre en la escuela es suficiente?

- ¿Echas de menos algo?

- ¿Te gustaría tener más oportunidades de participar junto con la escuela en la educación de tus hijo/as?

Si desea añadir algo:

Gracias por tomar la decisión de participar en este estudio y ofrecer tu tiempo.

6. Eranskina: Irakasleei egiteko galdetegiak

Nagore Angiozar naiz, Euskal Herriko Unibertsitateko *Bilboko Hezkuntza Fakultatean, Haur Hezkuntza* Graduko ikaslea. 4. Mailan nagoela kontuan harturik Gradu Amaierako Lana (GRAL) egiten ari naiz. Lanaren helburua eskolaren eta familiaren arteko harremanaren errealitatea ezagutzea da, eta horretarako ikerketa bat burutzen ari naiz. Hori dela eta, jarraian egindako galderak erantzutea eskertuko nizuke, lortutako datuak lana osatzeko oso baliogarriak izan daitezkeelako.

Galdetegiarekin lorturiko datuak konfidentziasunez gordeak izango dira. Ateratako datuak, lanerako soilik erabiliak izango dira, beti parte-hartzaileen datu pertsonalak eta identitatea babestuz.

- Gurasoekin bilerak egiten dituzu?

Bai

Ez

- Zenbatean behin?

- Kasuaren arabera, gehiago edo gutxiago batzen zara gurasoekin?

- Bilerak normalean zuk deitzen dituzu edo gurasoek ere eskatzen dituzte?

- Haurren informazio trukea egiteko bilerez gain elkarrizketak, mezuak... bidaltzen/izaten dituzu?

- Nola/zelan?

- Gurasoek umeen hezkuntzan parte-hartzen dutela sentitzen duzu?

- Familien aldetik zerbait faltan botatzen duzu? Inplikazio gehiago, laguntza, enpatia...

- Gurasoek eskolan eta ikasgelan orokorrean parte-hartzen dute?

- Gurasoak parte-hartzeko gogotsu ikusten dituzu?

Zerbait gehitzea nahi izanez gero:

Eskerrik asko ikerketa honetan parte-hartzeko erabakia hartu eta zure denbora eskaintzeagatik.

7. Eranskina: Baimen Informatuaren Orria

ELKARRIZKETAN PARTE HARTZEKO BAIMEN INFORMATUA

“Eskolaren eta familiaren arteko harremana aztertzen”.

Haur Hezkuntzako Gradua

Nagore Angiozar Garitano *Haur Hezkuntzako Gradua* burutzen ari da, Euskal Herriko Unibertsitateko *Bilboko Hezkuntza Fakultatean*, eta ondorioz, Gradu Amaierako Lana (GRAL) burutu behar du.

GRALerako hautatutako ikergaiaren helburua ikastetxea eta familia harremanaren errealitatea ezagutzea da. Horretarako, metodologia mistoaz baliaturik, ikerketa burutuko da. Datuak biltze aldera, hainbat aditu eta arituekin elkarrizketak egingo dira, jasotako datuetatik abiatuta ikerketaren emaitzak eta ondorioak aterako direlarik.

Horregatik guztiagatik, eragozpenik edukiko ez bazenu, eskertuko genizuke audioz grabatuak izango diren elkarrizketa horiek burutzeko baimen hau sinatzea, bertatik jasotako datuok ikerketarako erabiliak izan daitezen. Halaber, proiektuarekin kolaboratuz gero, eskuragarri izango duzu jasotako datuetatik ateratako informazio oro.

GRALaren inguruan informazio gehiago jakin nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan lanaren zuzendariarekin: Ainhoa Gana Dañobeitia, ainhoa.gana@ehu.eus.

Mila esker.

Elkarrizketatua izango den pertsonaren izen-abizenak:

Sinadura:

.....

Elkarrizketa burutuko duen arduradunaren izen-abizenak:

Sinadura:

.....

Zaldibarren, 2021eko(r)en.....(e)an.

8. Eranskina. Kategorizazio orokorren taula

Kategorizazio orokorraren taula

<i>Kategoria</i>	<i>Partaidea</i>	<i>Datuen analisisa</i>
<i>Errealitatea</i>	Irakasle tutorea	Orokorrean eskolako irakasle eta koordinatzaileak, gurasoekin batera errealitate berdina bizi dutela ikus daiteke. Eskola bezala, familiaren eta ikastetxearen arteko harremana zaintzen ahalegintzen dira eta familiek umeen hezkuntzan parte-hartze ona dutela sentitzen dute. Familien aldetik eskolan parte-hartzen dute, irakaslearekin bilerak edukiz, Guraso Elkartean eta Eskola Kontseiluan esaterako.
	Koordinatzailea	
	Familiak	
	Gainerako irakasleak	
<i>Harremana</i>	Irakasle tutorea	Eskolaren eta familiaren artean harremantzeko bide desberdinak erabiltzen dituzte. Harremana sarrera-irteeretan, urtean zehar izaten dituzten bileren bidez, telefonoz hitz eginez... ematen da. Hala ere, aurtan egoera berezian gaudela kontuan hartuta irakasleak umeen argazki eta bideoak bidaltzen ditu, umeak eskolan egiten ari direna etxean ikusi ahal izateko.
	Koordinatzailea	
	Familiak	
	Gainerako irakasleak	
<i>Maiztasuna</i>	Irakasle tutorea	Ikasturtean hiru bilera izaten dituzte, lehenengoa bilera orokorra izaten da, ondoren urtarril bukaera edo otsail hasieran banakako lehenengoa eta bigarrena maiatza edo ekainean. Asteazkenero, guraso eguna izaten dute eta familiek tutorearekin hitz egin nahi izatekotan eguna eskatzea besterik ez dute. Hala ere, eskola bezala familiei irekita daudenez, familiek behar dutenean hitz egin eta gelditzeko aukera izaten dute. Eskolako sarrera eta irteeretan ere biltzen dira, batez
	Koordinatzailea	
	Familiak	
	Gainerako irakasleak	

		ere irteeretan, lasaiago hitz egiteko aukera izaten dutelako.
<i>Asebetetzea</i>	Irakasle tutorea	Familiak zein irakasleak pozik daude. Irakasleak familiek umeak pozik ikusten dituztela aipatzen du eta horregatik beraiekin etxean motibatuta lanean ari direla.
	Koordinatzailea	
	Familiak	Eskola bezala, modu egokian lanean dabilzala aitortzen dute, beraien artean komunikazioa egoten baita.
	Gainerako irakasleak	